



Larunbat honetan,  
Salkin elkarteko kideen  
eskutik, Stock azoka  
Bastero inguruan

2015eko uztailaren 17a, 449 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

STOCK AZOKA ANDOAINEN

## Tokiko gobernua eta ardura nagusiak zehazteko batzarra

Andoaingo Udaleko batzorde ezberdinetako lehendakariak behin behinean EH Bilduren eskuetan geratu dira.

**E**ta, aldiz, Udalez gaindiko mankomunitateetako ordezkariak erabaki gabe geratu ziren. EAJ-PNV alderdiak botoa eman aurretik denbora gehiago eskatu zuen, alderdien artean are gehiago eztabaidatzeko. EH Bilduk jarmon egin zien jeltzaleei, eta beraz zaborren mankomunitate-rako ordezkariak gaur gaurkoz erabaki gabe dago. Behin behinekoak dira ere Tokiko Gobernu batzordeko kideen, alkate-



Udal ordezkariak astelehenean deitu zuten aparteko bilkuran.

ordeen eta batzordeetako lehendakari izendapenak. Gainerako alderdietako kideak ardu-

ra postuak hartzeko prest agertu baitira Ana Carrere eta bere koalizioa.

Abiatu den agintaldi berriak abiadura hartuko du oporraldiaren ostean. Hasteko eta behin, hamazazpigarren zinegotzia izendatu beharko du EAJ-PNV alderdiak. Izan ere, asteleheneko aparteko batzaraldian Gregorio Olasagastik bere errenuntzia martxan jartzeko prozedura zabaldu zela iragarri baitzuen. Gaur gaurkoz, beraz, Andoaingo udalbatza hamasei kidek osatzen dute. Olasagastik hilabete eskas egin du zinegotzi karguan, ekainaren 13tik uztailaren 13ra zehazki. Independiente modura aurkeztu zen herriki-deak ibilbide motza egin du hasi berri den agintaldian.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

## Udal aisialdia Urnietan

Gipuzkoako txokoetan edota Gaztelekuan bertan, Urnietako haur eta gazteei zuzenduta ekitaldi ugari burutuko dituzte hurrengo astean.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Udako jaiak Andoaingo auzoetan

Karrikan jaiak asteburu honetan ospatuko dituzte. Eta hamabost egun barru abiatuko dira Etxeberrietan eta San Estebanen. Aurreraxeago, Buruntzakoak.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Mendeurreneko ekitaldia Urnietan

Aurreko igande eguerdian, herritarrak San Juan plazan sagardoa eta gazta dastatuz ari ziren bitartean, udaletxeko pleno aretoan ekitaldi insituzionala burutu zen.

Mikel Pagola alkateak harrera beroa egin zien Urnietara hurbildutako ordezkariari. Tartean ziren Ahaldun Nagusia eta eskualdeko alkateak.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]



Plazan efemeridea gogoan duen plaka ipini zuten. Mikel Pagola alkateak hitza hartu zuen herritarren aurrean.

## Udako albisteak internet sarean

Irailaren hasiera bitarte, Aiurri astekariak udako etnaldiari ekingo dio. Paperari dagokionez izango da hori, webgunean eta sare sozialen bitartez udako gertakarien eta jaien berri emango baita. Ohi bezala, udako argazkiak eta bideoak internet sarean ikusgai izango dira.

Irailaren 3an banatuko da hurrengo Aiurri astekaria, besteak beste, Sorabillako jaien informazioarekin.



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
**Aiurri**

Uztailaren 17tik aurrera, sarean lanean:

- Jaiak, albisteak, gertaerak, deialdiak...
- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai [www.aiurri.com](http://www.aiurri.com) webgunean
- **Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**

## 1615 URNIETA 2015

# Zorionak zuri, Urnieta

1615. urteko uztailearen 12an, urnietarrek hiritargo izaera izateko eskumena lortu zuten. Dirutza jartzeaz gain, funtsezkoa izan zen Donostia, Hernani eta Aiztondok jokatu zuten papera. Urnietako lu-

rrak hiru herri horien menpe zeudelako, eta beraz, hiritargo izaera horien baimenari esker lortu zuten. Aurreko igandean ospakizun ezberdinekin gogoan hartu zuten duela 400 urteko gertaera hura.

**A**lkateak horrelako gertaerak inoiz ahaztuko ez diren uneak bizitzeko aukera ematen duela adierazi zuen: "Urnietaren urtemugaren lekuko izaten ari gara eta laurhun urte bete dituela ospatzen ari gara". Bestalde, **Rosa Aierbek** idatzi duen "*Urnieta de tierra a villazgo*" liburua gogora ekarri zuen, "Arbasoen nondik norakoak hobeto ezagutzeko eta herri bezala nola sortu ginen ezagutarazteko baliagarria izango da". Idazlea pleno aretoan bertan zegoenez, aukera hori baliatu zuen beste behin egindako lanagatik eskerrak emateko: "Urnietarrei aukera eman diguzu gure bizitzaren pasarte bat ezagutzeko, eskerrik asko".

## URNIETARRAK GORATUZ

**Mikel Pagola** bere adierazpenean urnietarrei 400 urte hauetan zehar gauza on eta txarrak bizitzea egokitu zaiela azaldu zuen: herriaren eboluzioa, populazioa handitzea, gerrateak.... Denboran hain atzera joatearekin batera, orain 29 urteko gertaera gogoan hartu zuten ere. Izan ere, Hernani eta Andoingo herrietarrek batera, urnietarrek ere Lasarte-Oriari herri izateko aukera eman baitzieten.

## GIPUZKOAKO ALTXORRETAOKA

"500 urte eta gehiago betetzea opa dizuet", adierazi zuen **Markel Olano** Ahalduen Nagusiak hitza hartu eta berehala. Zorionak emanez eta Gipuzkoa-



Herriarekiko konpromisoen agiria eskuetan, Mikel Pagola alkatea kargua hartu berri duten Udal ordezkari guztiekin batera.

ko herrien garrantziari buruz hizketan jarraitu zuen: "Gipuzkoak altxor bat dauka bere 88 herrietan, eta herri bakoitzak bere nortasuna dauka. Nortasun horien batasunarekin Gipuzkoa osoaren nortasuna lortzen da. Gipuzkoak, bere bailaratan eta bere herrietan, etorkizunaren hazi garrantzitsu bat du. Hor dago gure nortasunaren arima eta gure etorkizunaren giltzarik nagusiena". Foru Aldundia herrien eta bailaren oreka mantentzeko bide-lagun izango dela azpimarratu zuen, "gure helburu nagusia

Euskal Herri osoaren nortasuna eta biziraupena elkarrekin mantentzea izango da. Borondatea duzuen bitartean herri bezala jarraitzea opa dizuet, eta izan zaitezte zoriontsu ibilbidean zehar".

Ez zen Markel Olano Ahalduen Nagusia Urnietara hurbildu zen agintari bakarra izan. Alkateak denei esker ona adierazi zien. Urnietan ziren, besteak beste, **Imanol Lasa** Foru diputatua, **Maria Eugenia Arrizabalaga** Batzar Nagusietako ordezkaria, Donostiako alkate **Eneko Goia**, Hernaniko **Luis In-**

**txauspe**, Lasarte-Oriako **Jesus Zaballos**, Astigarragako **Jesus Santos**, Urnietako alkate ohiak **Joxe Manuel Martiarena**, **Florentino Ugalde** eta **Mikel Izagirre**, Urnietako Udal hautetsiak eta, azkenik, herritarrak. "Ongi etorriak izan zaitezte, eta eskerrik asko Urnietaren urteurrena ospatzeko antolatutako dugun ekitaldi honetan izateagatik".

## SINADURA EKITALDIA

Ekitaldiari amaiera emateko, etorkizuneko Urnietara begirako printzipioak onartu eta sinatu zituzten. "Hau izango da

etorkizuneko Urnieta ikusteko konpromisoa", azaldu zuen alkateak. Banan-banan sinatu zuten agiria, eta horrela eman zioten amaiera udaletxeko ekitaldi nagusiarri.

San Juan plazan jarritako plakak ondo erakusten duen bezala, Urnieta Goiburu, Lategi, Ergoien eta Oztaran bailaraz osatuta dago. "Urnietan errotoak herri sendo bat da, bailarez inguratua. 400. urteurren honetaz baliatu nahi dugu herritarren artean, Urnietarekiko maitasuna eta herri izaera barneratzeko".



Txambolin txistulari taldeak mendeurrenako musika pieza berria eskaini zuen.



Egape dantza taldeko kideek mendeurrenako oroigarriaren ondoan dantzatu zuten.

## 1615 URNIETA 2015



Urnietako Udal korporazioa Martiarena eta Ugalde alkate ohiekin, Buruntzaldeako alkateekin, Donostiako alkatearekin eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanorekin batera.

gandean 400 urte bete ziren Urnietak herri izaera lortu zuenetik, eta hori ospatze aldera, goizean zehar orotariko ekintzak antolatu zituzten San Juan plaza inguruan.

Erraldoi eta buruhandien topaketak herritar ugari erakarri zituen. Urnietakoez gain, Astigarraga, Usurbil, Hernani eta Lasarte-Oriako erraldoiak elkartu ziren, eta dultzaineroen laguntzarekin, herrigunear dantza eta itzuli ikuskizuna eskaini zuten.

Plazan bertan Urnietako alkate Mikel Pagolak eta Ahaldu Nagusi Markel Olanok adierazpenak eskaini zizkieten bertaratu zirenei. Mikel Pagola alkateak herriaren burujabetza egun horretan bertan lortu zutela gogorarazi zien urnietarrei: "Gure aurretik pertsona asko bizi izan bada ere, gauza asko gertatu izan badira ere, 1615eko uztailearen 12tik aurrera lortu genuen herri bezala onartua izatea. Urnietarrek egindako aportazio ekonomiko handi bati esker, erregeak eman baitzuen Urnieta herri

*Plazako oroigarri berriak 1615-2015 efemeridea erakustez gain, Goiburu, Ergoien, Oztaran eta Lategi auzoen izenak eta haiengana gerturatzeko norabidea zehazten ditu*

izendapena ahalbidetzen zuen baimena".

#### LAU AUZOAK AIPAGAI DITUEN OROIGARRIA PLAZAN

Harro egoteko moduko eguna zela adierazi zuten. Urtemuga betirako oroimenean geratzeko, lurrean ezarritako plaka ikusgai jarri zuten une horretantxe. Herritarrek jakin-min ez begira zeuden bitartean, Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak eta Urnietako alkateak plaka erakutsi zuten. Plakak 1615-2015 data erakustez gain, Goiburu, Ergoien, Oztaran eta Lategi auzoen izenak eta haietara gerturatzeko norabidea zehazten ditu, "Guztiok Urnieta bakarra" osatzen dugula irudikatuz.

*Antton Jauregik mendeurreneko kantua egin du, Txanbolinek eta Egapek eskaini zutena. Letrak zera dio: "Gu izan baginen, orain ere izan bagara, aurrerago ere izangogara"*

#### MEDEURRENEKO DOINUA ANTON JAUREGIREN ESKUTIK

Horrez gain, urteurrenak musika berezi bat baduela erakutsi zuten. Izan ere, Antton Jauregik mendeurrenaren harira pieza berezia sortu du. Hala, Txanbolinek abesti berezi hori jo bitartean, Egape Dantza Taldeak dantza egin zuen. "Gu izan baginen, orain ere izan bagara, aurrerago ere izangogara", zihoen kantuaren letrak. Herritarren txalo zaparrada handi batekin amaitu zen mendeurreneko ikuskizuna. Ondoren, herriko sagardo eta gaztagileen dastaketa izan zuten plazan.

Aiurri.eus webgunean mendeurreneko argazkiak eta bideoak ikus daitezke.



Gazta eta sagardoa dastatzeko aukera izan zen Urnietan. Irudian Adarrazpi baserrikoak.

## Udal antolamendu berria

Uztailearen zazpian abiatu zen agintaldi berria. Udal antolamendua trinkotu egin dute, Mikel Pagola alkatearen lanaldiaz gain, hiru batzorde nagusi osatuz: Antolakuntza (Vaquero), Lurralde (Segurado) eta Hiritartasuna (Rosco). **Maribel Vaquero** alkate-ordeak antolaketari buruzko xehetasun gehiago eskaini dizkio Aiurri.



### Udal antolamendu berrian, hiru batzorde nagusi nabarmentzen dira. Herritar askorentzat berritzailea gerta daiteke formula hori. Nola definituko zenuke zuk?

**Maribel Vaquero.** Ohiko sistematik aldentzen delako berritzailea izan daiteke, bai. Baina Udal administrazioari dagokionez hiru eremu zehazten ditu legeak: Udal antolamendurekin zerikusia duena da bat. Bestea, herritargoari begira egiten dena eta hirugarrena lurraldearekin lotura duena da.

Udal antolakuntza berritzea lehendik ere kontutan hartu izan da Urnietan. Ugalderekin hasi ginen lehen pausak ematen, Izagirrekin ondoren... iaz, Bertan arreta zerbitzua martxan jarri genuen, hausnarketa egin genuen. Abiapuntua oso sinplea zen: zein zerbitzu eskaintzen dugu? Eta eskaintzen duguna egokiena al da? Bada, horrela konturatu ginen hiru zerbitzu nagusi eskaintzen ditugula. Horietako bat litzateke herria zaintzea, hirigintza atalaren bitartez nagusiki. Bestea, giza garapenerekin lotuta dago: sustapen soziala, babes soziala. Hirugarrenak Udal antolaketarekin zerikusia du: arreta zerbitzua, web zerbitzua, langilegoa...

### Efizientzia areagotzea izan al da zuen helburu nagusia?

**M.V. Bai,** halaxe da. Udal barruko lanak errepikatzea eta biderkatzea saihestu nahi izan dugu. Irizpideak bateratu eta inertziekin amaitu behar da.

Efizientzian sakontzea ezinbestekoa da. Bestalde, gauzak egiten ditugun moduari buruzko hausnarketa bat ere bada. "Zergatik egiten dugu hau?", galdera hori gure buruari etengabe egiten diogu. Gauzak egin eta egin, horrela ibiltzen gara, baina nola egiten diren gehiegi hausnartu gabe.

### Hiru batzorde horietako arduraz zuzen, Roscorengan eta Seguradorengan daude. Zenbaterainokoa izango da esperientzia falta eragozpen bat Seguradorentzat?

**M.V.** Hartu dituen ardurak gertukoak zaizkio Seguradori, bere ibilbide profesionalagatik. Hirigintza oso ezaguna zaio. Bestalde, sistema honetan Segurado ez da bakarrik arituko. Lurralde batzordearen baitan arlo ezberdinak daude, bakoitza bere ardura duenkin. Mikel Pagola alkatea bera ere oso gertu izango du.

### Aurreko asteko plenoan, PSE-EEko bozeramailearen adierazpenak entzunda, ordezkariek politikoen liberazioa Gobernu taldean sartzera lotu zutenela ulertu zen.

**M.V. Bai,** horixe izan da gure irizpidea. Gobernu taldeak hamabostean behin erabakiak hartzen ditu, ardura handiak: lizentziak, hitzarmenak, ... Liberazio politikoa hartzeko garaian bi irizpide hartu ditugu kontutan: Ardura handi bat izatea, David Roscoren kasua da hori, edo gobernu taldean izatea. Oposizioko ordezkariek liberazio politikoa eskaini genien, baldin eta ardura postu bat hartzen bazuten. Horregatik gobernu taldean sartzera eskatu genien. Udal kudeaketan sartu dira, modu horretara.

### Mikel Pagolaren bigarren agintaldia izanik, irailtik aurrera udalgintzak abiadura berean jarraituko al du?

**M.V.** Jarraitortasun bat dagoen aldetik, hori gertatuko da. Baina Urnietako jaiak kontutan harturik, udal jardura bete-betean urrian jarriko da martxan. Gehiengo osoa izanik ere, ardura handiarekin ekingo diogu. Herritarrekiko komunikazioan sakondu nahi dugu. Tresna berriak martxan jarri ditugu, webgunea esaterako, eta orain herritarrekin harremana areagotzen asmatu nahi dugu.

## ASTELEHENEAN EGIN ZUTEN LEHEN BATZARRALDIA

# Agintaldi berriko lehen Udal batzarra

Aurreko astelehenean, uztaileak 13, Andoaingo udaletxean hainbat erabaki hartzeko aparteko bilkura deitu zuten. Agintaldiaren hasiera izanik, dedikazio ezberdina izango duten ordezkariak izenda-

tu behar ziren eta baita batzorde ezberdinetako lehendakaritzak ere. Udalaz gaindiko ordezkariaren izendapenak, eskualdeko mankomunitatea esaterako, mahai gainean utzi zituzten.

**A**zkar igaro zen agintaldi berriko lehen Udal batzarra. Aparteko izaera zuen, agintaldiari lotutako erabaki teknikoak hartu behar baitziren. Gobernu taldeko hainbat kideren liberazioaz gain (beheko artikuluan, xehetasunak), jeltzaleen aldetik Mari Jose Izagurrek %70eko lan jarduera izango du udaletxean. Antzekoa izango dute sozialistek, baina gaur gaurkoz erabaki gabe dago nor izango den. Ganemos alderdiko Olga Hernandezek %17ko lan jarduera izango du.

Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak erabaki gabe geratu zen, jeltzaleek alderdien artean eztabaidatzen jarraitzea proposatu eta gero.

Lehen batzarra horretan ere gobernu taldeko kideen eta alkate-ordeen izendapenak egin zituzten. Baita batzorde bakoitzeko lehendakariak erabaki ere. Postu horietan guztietan EH Bilduko ordezkariak agertzen dira, nahiz eta plenoan zehaztu zuten, hurrengo



Ezker eskuin irabazi, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Ganemos alderdietako ordezkariak uztailearen 13ko Udal batzaraldian.

hilabeteetan oposizioko kideak ardura postuetan izateko aukera zabalik utziko den.

Batzarria amaitzeko zegoenean, EAJ-PNVko Gregorio Olasagasti zinegotziak hitza hartu zuen "herritarren aurrean, nire kargua uzteko tramitazioa martxan dagoela" jakinarazteko. Hilabete eskas egin du zinegotzi lanetan, zeinak

berak aitortu zuen bezala, denbora tarte horretan "gauza asko" gertatu diren. Ibilbide laburra izanik ere, Ana Carrere alkateak Olasagasti eskerrak eman zizkion herri ordezkari gisa egindako lanagatik.

Datozen asteetan, Andoaingo EAJ-PNV alderdiak zinegotzi lanetarako Olasagastiren ordezkaria izendatuko du.

## GREGORIO OLASAGASTIREN AGURRA



Agintaldi honetan Olasagasti hilabete eskas egin du zinegotzi postuan.



Calparsoro fiskalak Andoaingo kargu hartze ekitaldiari buruzko ikerketa ekainaren 29an itxi zuen. Udal idazkaria eta Olasagasti deitu zituen deklaratzera.

## Gobernu taldea "ilusioz" ari da lanean

Uztailearen 10ean, aurreko ostiralean, EH Bilduko ordezkariak behin behineko Gobernu taldearen izenean agerraldia deitu zuten. Nagusiki, lanari ekiteko gogoz daudela adierazteko: "Ekainaren 15etik eguneroko lanean murgilduta gaude. Aste nahasiak bizi izan ditugu, askok herrian bizi ez den krispazioa hedatu nahi izan dutelako. Hala ere, ilusioz ari gara lanean. Sanjuanak oso giro onean eta parte hartzailean igaro dira, eta ondoren ere lanean jarraitu dugu. Udal dinamika martxan dago, batzordeak osatuta daude eta lehen plenoa egitear gaude". Hedabideen aurrean adierazi zuten, gainerako Udal ordezkariekin batera lanean jartzeko gobernu egitasmoa

osatu dute, "zirriborro modura aurkeztu diegu, epe motzean ditugun erronkekin eta legealdian zehar egin beharreko proiektuekin. Epe motzean, lehen nagusia egoera ekonomikoa bideratzeko neurriak hartzea izango da". Gobernu taldeak uraren kudeaketa Gipuzkoako Urak erakundeari utzi nahi dio, bertatik lor dezakeen diruarekin inbertsioei ekiteko. Erabaki hori hartzeko, orde, ez du gehiago osorik.

Gaur gaurkoz EH Bilduko ordezkariak dira batzorde ezberdinetako lehendakariak, "baina beste alderdietako kideak gobernu arduetara batzea" baztertu gabe. Arduren banaketa, agintaldiaren hasieran, honakoa da:

### Tokiko Gobernu batzordea

Bost kidek osatua: Ana Carrere alkatea, Ainara Rodriguez, Jon Zulueta, Esti Mujika eta Agustín Alberro.

### Lan sailak

- Gizarte zerbitzuak, kirolak, ingurumena: Ana Carrere.
- Zerbitzuak, Udaltzaingoa, lehen alkate-ordea: Pedro Unanue.
- Euskara, langilegoa, komunikazioa, bigarren alkate-ordea: Ainara Rodriguez.
- Sustapen ekonomikoa, enplegua eta gazteria, partaidetza, bozeramailea, hirugarren alkate-ordea: Jon Zulueta.
- Kultura, hezkuntza eta berdintasuna: Esti Mujika.
- Hirigintza, ekonomia, ogasuna: Agustin Alberro.



Jon Zulueta bozeramailea eta Ana Carrere alkatea, aurreko ostiralean.

### Liberazioak

Irailetik aurrera, Ana Carrere egun osoz arituko da eta 2.230 euroko soldata eskuratuko du. Ainara Rodriguez, Jon Zulueta eta Esti Mujika %68ko lanal-

dian arituko dira, 1.617 euroko soldata irabaziz. Agustin Alberro eta Pedro Unanue egun osoz arituko dira baina soldatarik kobratu gabe. Biak ere erretiratuak dira.



**ONDO PASA SANTIOTAN!**

**KeiNU**

Kale Nagusia, 12  
 ANDOAIN  
 943 02 96 76 / 637 28 32 24  
 keinu.andoain







**TXAPELA, BANDERA, ERX GUZTIETAKO BORDATUA, BLUKA, TXILABA ETA BASERRITAR JANTZIA**

# Txupinazoa Oinkariko dantzarien eskutik

**AZAROAN BERROGEI URTE BETEKO DIRA OINKARI DANTZA TALDEA SORTU ZELA. URTEURRENAREN URTEAN, OINKARI DANTZA TALDEKO KIDEEK BOTAKO DUTE JAIEN HASIERA IRAGARRIKO DUEN SUZIRIA.**

**40 urte beteko ditu Oinkarik azaroan. Nola bizi duzue urteurrenaren urtea?**

**Oihana Iguaran.** Urteurrenak betiko lanaren zurrumbiloan harrapatu gaitu: emanaldi berriak, dantza eskola, festak... Baina ilusio berezia dugu azarora begira, lasaiago egotea espero dugu, urteurrenari begira soilik lan egin ahal izateko.

**Eli Larrañaga.** 40 urte hauetan Oinkari dantza taldea osatu duten belaunaldi guztiak biltzea da gure ideia eta guztiak parte hartuko duten emanaldi berezi bat prestatu nahi dugu. Izan ere, Oinkari dantza taldea ez baitute egun aktibo diren dantzariak bakarrik osatzen.

**O.I.** Urteurreneko ekintzen artean, esan bezala, Oinkariren ibilbidea biltzea helburu duen emanaldi bat izango da, baina ospakizun informalago bat ere aurreikusten dugu, bazkari eta erromeri festarekin. Eta besteak beste, Oinkarik parte hartzen ez duen dantza emanaldiren bat ere eskainiko da.



**Ane Urruzola, Eli Larrañaga, Jone Mendiluze, Oihana Iguaran eta Eneko Arteaga, Oinkariko Santiotako ekimenak antolatzen ari diren lan taldeko kideak.**

**Zenbat kidek osatzen du egun dantza taldea?**

**E.L.** 3 urtetik 30era bitarteko 250 dantzari gara guztira.

**Herri mailako taldea izatetik maila profesionalagoan aritzera pausoa eman du azken urteetan dantza taldeak. Oihartzun handiko ikuskizunak taularatu dituzue, Euskal Herriko mugak ere gaindituz...**

**O.I.** Apustu eta lan aldetik profesional maila horretara pausoa eman badugu ere, herri mailako dantza taldea izaten jarraitzen du Oinkarik, herri izaera mantenduz. Esaterako, emanaldietarako ez dira dantzariak aukeratu edo kanpoan uzten, bakoitzak ahal duen neurrian, denok hartzen dugu bertan parte. Alde horretatik herri izaera mantendu dugu eta baita, argi dagoenez, herri mailan daukagun inplikazioagatik ere. Beste diziplina batzuekin ausartu bagara ere, -tarte-an baita antzerkiarekin ere-, zutabe nagusia euskal dantzek izaten jarraitzen

**“Objektiboak izanda, Oinkarik suziria botatzeko garaia badela uste dugu”**

dute eta horiek ondo menderatu arte ez gara alor berriak lantzen hasten; ez baitugu oinarria galtzerik nahi.

**E.L.** Edu Muruamendiaraz dantza garai-kideko hainbat pauso erakusten hasi zitzaigunean etorri zen berrikuntzarako lehen pausoa. Geroztik Kukai edo Anakrusa dantza konpainiatako kideekin izan dugu harremana, baita Agurtzane Intxaurraga antzezlearekin ere. Beste alor batzuk landu ditugu haiekin eta guretzat erreferenteak izan dira, asko ikasi baitugu.

**Uztailaren 24ko txupinazoa botatzeko ardura izango duzue aurten. Nola jaso duzue berria?**

**“Urteurreneko ekintzen artean, Oinkariren ibilbidea bilduko duen emanaldi bat izango da”**

**O.I.** Sorpresa izan da guretzat, suziria besteren batzuek bota behar zutela uste baikenuen.

**E.L.** Objektiboak izanda, hala ere, Oinkarik suziria botatzeko garaia badela uste dugu. Guk dakigula behintzat, 40 urte hauetan zehar ez baitu sekula dantza taldeak halakorik egin eta azken urteotan bereziki, inoiz baino gehiago aritu baikara festetan lanean.

**Atsedean handirik gabe arituko zarete aurten ere...**

**O.I.** Bai, festako denbora hartuz gero, loari kendu beharko diogu. Lehen lau egunetan behintzat segida-segidan antolatuko baititugu ekintzak.

**PARTE HARTZEKO DEIA**

Herritarrei parte hartzeko deia luzatu nahi die- te Oihanak eta Elik, “antolatzaile bezala izugarriko ilusioa egiten baitugu gure lanak jendea erakartzen duela ikusteak eta herritar bezala ere gauza ederra baita herria martxan ikustea”.

**E.L.** Lehen egunean txupinazoarekin hasita, Erromeria eguna izango da uztailaren 25ean, konpartsa herrikoia uztailaren 26an eta dantza eskolako emanaldia uztailaren 27an. Sprintean abiatuko ditugu festak. Koadrilen eguna guretzat hartzen saiatzen gara, baina dantza taldearen txosna ere jartzen dugunez, seguru asko aste guztian zehar izango da zereginik. Batean ez bada bestean, Oinkari egunero izango dugu presente.

**O.I.** Umeen kasuan bereziki, urte guztian zehar egindako lana herritarren aurrean erakustea oso gustagarria izaten da. Konpartsa ere bereziki polita da, dantzarekin edo Oinkarirekin harreman estua izan ez duen jende asko erakartzeaz gain, herri mailan ere ikusmin handia sortzen duelako.

**E.L.** Oso esker-oneko ekimena da konpartsa, egindako lan guztiaren emaitza oso polita izaten baita. Erromeria egunak ere jende asko biltzen du plazan eta asko eskertzen da egindako lanaren ondoren jendea gustura ikustea.

**Txupinazoaren inguruan ezer aurreratzerik bai?**

**E.L.** Zer edo zer sinplea egiteko asmoa dugu. Txupinazoaren garaian, herritar- rrek festak hasteko desiatzen egoten dira eta gu ez gara luzatuko. Dударik gabe, dantza egongo da.

**O.I.** Oholtzatik bakarrik emandako txupinazoa izan ez dadin saiatuko gara eta baita plaza aktibatzen ere. Ikusi egin behar lortzen dugun! Baina esandakoa, festak dira protagonista eta haiei utziko diegu lekua.



# Inude eta Artzainen konpartsaren itzulera

**UZTAILAREN HOGEITA SEIAN, SANTA ANA EGUNEZ, INUDE ETA ARTZAINEN KONPARTSAK HERRIKO KALEAK ALAITUKO DITU. DANTZARI, DANBOR-JOLE, PERTSONAI NAHIZ MUSIKARIAK IBILIKO DIRA KALEZ KALE.**

**O**inkari dantza taldeak bideratuta, joan zen apirilaren amaieran hasita, asteazkene-ro entseguak egiteko bildu dira dantzariak Txerningo ikastolako ganbaran. Koreografiak ikasteko lanak amaituta, guztira 50 bikote inguru ibiliko da inude eta artzainen paperean dantzan; panpina eskuan inudeak, makila bizkarrean artzainak. Danbor-joleak Txerningo jubilatuen egoitza zaharrean egin dituzte entseguak eta datorren uztailaren 23an, dantzari, musikari nahiz danbor-joleek elkarrekin izango dute emanaldiaren aurreko azken entsegu orokorra.

Ez da Villabonan Inude eta Artzainen konpartsa kaleratuko den lehen aldia. 1992an eta 2008an ere kalez kale ibili baitziren, antzinako hamaika pertsoniarekin batera. Aurten, hirugarrenez, beraz, kolorez eta alaitasunez jantziko dituzte herriko kaleak.

Uztailaren 26an, igandearekin, goizeko 11:30etan bilduko dira parte hartzaile guztiak Txerningo ikastolaren atarian eta handik emango diote hasiera kalejirari. Auzoz auzo eta kalez kale dantza ezberdinak eskainiz igaroko dute goiza eta Txerningo ikastolaren azpian bazkaldu ondoren, arratsaldeko kalejira eta gero, 18:00etan eskainiko dute emanaldi nagusia Errebote plazan.

**ERROMERIA EGUNA, UZTAILAREN 25EAN**  
Konpartsa egunaren bezperan, uztailaren 25ean, Santio egun bete-betean antolatatu du Oinkari dantza taldeak Erromeria eguna. Santio eguneko Soka-dantza arratsaldetik eguerdiko 13:30etara aldatu dute eta arratsaldeko 17:30etan Iskanbila txarangaren kalejirarekin berrekingo diote goizaldera arte luzatuko den egitarauari. Ohi denez, arratsaldeko 18:00etatik aurrera sagardo eta pintxo dastaketa izango da, aurtengoan Maria Lasa eta Garazi Otaegiren trikiti doinuaz girotuta. Hainbeste urteren ostean, aurten aldaketa nabarmen bat



1992ko Inude eta Artzainen konpartsa plazara iristen.

**Uztailaren 26an,  
goizeko 11:30etan  
Txerningo ikastolako ataritik  
emango zaio hasiera  
konpartsaren kalejirari**

izango da, ez baita zikiro afaririk izango. Oinkariko arduradun Eneko Arteagak adierazi duenez, azken urteotako bilakaeraren ondorioz hartu dute erabaki hori, "urtez urte goitik behera etorri baita". Zikitorik afaldu gabe izanagatik, azken urteotako bideari jarraiki, bertso saioa izango da Errebote plazan 22:30etan. Agin Laburu, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Oihana Iguaran arituko dira bertsotan, Amaia Agirrerren esentan. Ondorenean dantzarako aukera bikaina izango da. 00:00etan hasita, Gozategi taldearen emanaldia izango da,

02:00etan Larrain-dantza herrikoia eta 02:30etan Unsain taldearen dantzaldia.

**DANTZA ESKOLA TAULA GAINEAN**

Uztailaren 27an, astelehenarekin, 22:00etatik aurrera, dantza emanaldia eskainiko dute Oinkari dantza eskolako dantzariak Olaederra kiroldegian. Haur

nahiz heldu, dantza eskolako ikasle talde osoak hartuko du parte eta zuzeneko musika eskainiko duten bederatzitik musikari arituko dira dantzariarekin batera. Azken urteetan Poxpolo ta konpainia pailazoan laguntzarekin eskaini izan dute saio hori. Aurtengoan dantzariak soilik arituko dira.



Dantzarien entseguak Txerningo ikastolako ganbaran.

**Arretxe**  
ERAIKUNTZAK S.L.  
Laskibar bailara, 4 / 3-20 lokala - Tel.: 669 479 496. Faxa: 943 693 880 - Irura

**Jaiak ondo igaro**

**BASAJAUN LIBURUDENDA**

Hurrengo kiroldegiko testu liburua entseguentzako garain heldu da. Aurten liburua entseguentzako dantzariek arteen zozketan munduak egingo dugu. 50 € erosketan bonoa izango da sarria. Zuzeneko eguna, abuztuaren 31ra bitartekoa.

**Animo eta parte hartu!**

**Aurten liburuak dohain forratzen dira!!**

Ondo pasatu Santiotan!

Nagusia: 29 - 20150 VILLABONA  
Tel./faxa: 943 691 651 - basajaunliburudenda@gmail.com

# Santioak Villabonan

## Uztailak 24

### OSTIRALA, JAIEN HASIERA

- 16:00 Frontenis finala Olaederran.
- 17:00 Pilota: Paxaka finala Olaederran.
- 18:00 Txupinazoa, aurten 40. urteurrena beteko duen Oinkari dantza taldearen eskutik, Iraunkorrek txarangak alaituta.
- 18:15 Buruhandi eta erraldioen kalejira, Loatzo musika eskolako dultzainero taldeak alaituta.
- 19:30 Futbito finala, Erreboteko plazan.
- 21:00 Herri afaria, Erreboteko plazan.
- 23:30 Danborrada, Iraunkorrek txarangak alaituta. Musika eskolatik abiatuko da.
- 00:30 Dantzaldia, Triki ta Ke.
- 01:00 Gazte garaiak oroitzuz, 40 urtetik gorakoentzako DJ emanaldia Txistulari plazan.



## Uztailak 25

### LARUNBATA, SANTIO EGUNA

- 08:00 Diana, txistulariek alaituta.
- 10:00 IV. Eskulangintza azoka, Malkar plazan, Solano musika eskolako trikitilariak alaituta.
- 10:30 XXXV. Herri krosa haurrentzat, Altzin plazatik, Zumbeltz elkartearen eskutik.
- 11:00 XXXV. Herri krosa helduentzat, Altzin plazatik, Zumbeltz elkartearen eskutik.
- 11:15 Udalbatzaren desfilea elizaraino, txistulariek lagunduta. Mezaren ondoren, Udalbatzaren bisita Santio egoitzara.
- 12:00 Atari Bizi lehiaketaren eta egitarauko azal lehiaketaren sari banaketa, Malkar plazan.
- 12:30 Erraldioen, ipotxen eta buruhandien kalejira eta emanaldia Malkar plazan. Donostiako Irrintzi konpartsak eta Villabonako erraldoi eta buruhandiek parte hartuko dute.

- 13:30 Soka-dantza, Erreboteko plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik, Udalbatza guztiaren parte-hartzearekin.
- 17:30 Erromeri eguna, Erreboteko plazan, Oinkari dantza taldeak antolatuta. Kalejira, Lizartzako Isk&bila txarangaren eskutik.
- 18:00 Halterofiliako III. Liga nazionala. V. Santio saria, Zentro tabernaren ondoan. Parte-hartzaileak: Danok Danena (Villabona-Zizurkil) eta Anaitasuna (Iruñea).
- 18:00 Erromeri eguna: Sagardo eta pintxo dastaketa.
- 18:30 Erromeri eguna: Maria Lasa eta Garazi Otaegi trikitilariak.
- 22:30 Erromeri eguna: Agin Laburu, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Oihana Iguaran bertsolariak. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.
- 00:00 Erromeri eguna: Gozategi.

- 02:00 Erromeri eguna: Larrain-dantza herrikoia.
- 02:30 Erromeri eguna: Unsain taldea.

## Uztailak 26

### IGANDEA

- 09:00 Diana, Loatzo musika eskolako dultzainero taldeak alaituta.
- 09:00 Plater tiraketa, Loatzo tiro elkartearen eskutik, Atxutu-Mandoege zelaian.
- 10:00 Bola tiraldia, Behar Zana elkarteeko Bola taldearen eskutik.
- 10:00 Irristaketa lasterketa herrikoia, haurrentzat, Eroski paretik abiatuta, Arratzain irristaketa taldearen eskutik.
- 10:00 Xake jokoa, XXX. Santio txapelketa. "J.M. Ezkai memoriale", Txistulari plazan, Billabona Xake joku elkartearen eskutik.

- 10:30 Irristaketa lasterketa herrikoia, helduentzat, Eroski paretik abiatuta, Arratzain irristaketa taldearen eskutik.
- 11:30 Inude eta artzainen konpartsaren irteera, Txermingo ikastolatik.
- 18:00 Inude eta artzainen konpartsaren emanaldia, Erreboteko plazan.
- 19:00 Herri kirolak, Malkar plazan: sokatira, lastoa altxatzea, harrijasotzaileak eta aizkolariak.
- 23:00 Dantzaldia, Joxe Mendizabalen eskutik.

## Uztailak 27

### ASTELEHENA

- 11:00 Patata tortilla lehiaketa, 11-17 urte artekoentzat, Txermingo ikastolaren azpian.
- 11:30 Marrazki lehiaketa, Berdura plazan, Oria merkatarien elkartearen eskutik.



- Ehizeko arropan deskontu bereziak
- %50eko merkealdia kirol gaietan
- Konponketako lantegia
- Eskopeta eta kartutxoan aukera handia

**Ondo pasa festetan!**



# Eizmendi Anaiak

Berrita 19-21 • 20.150 Villabona • Tel.: 943 692 623 • Faxa.: 943 693 044



# Uztailak 24-31

**16:00** Txirrindulari lasterketa herrikoa, 3-14 urte arteko haurrentzat, Irrintzi elkartearen eskutik. Irteera eta helmuga, Eroski parean.  
**18:00** Sokamuturra, Erreboteko plazan, dultzaineroek alaituta.  
**19:30** Buruhandi eta erraldioen kalejira, dultzaineroek alaituta, Remiren pasealekutik abiatuta.  
**19:30** Txekor jatea eta sagardo dastaketa, Zumbeltz elkartearen eskutik, Txermingo ikastolan.  
**22:00** Oinkari dantza eskolaren emanaldia, Olaederra kiroldegian.  
**23:00** Incansables txarangaren kalejira herrian zehar, Olaederra kiroldegitik abiatuta.

taldearekin, Txermingo ikastolan.  
**14:30** Bazkaria, Berdura plazan, Onddo gazte asanbladaren eskutik.  
**16:15** Zumba klase herrikoa, Txistulari plazan.  
**17:00** Haur parkea, Arroan: Slide, ohe elastikoak, Spiderman txirrista, oihana, ...  
**17:30** Poteo-kalejira, Orkresta Nazionala.  
**18:00** Pilota: Gomazko paletako eta eskuzko afizionatuen finala, Bearzana pilotalekuan.  
**18:00** Cycling mini-maratoia, Txistulari plazan.  
**22:30** Eresargi abesbatzaren emanaldia, Gurea antzokian.  
**23:00** Kontzertua: Lain eta Esne Beltza Erreboteko plazan.

**20:00** Dantzaldia, Tximeleta taldea.  
**21:30** Kafe eta likore dastaketa jubilatuentzat, Jubilatuen biltokian.  
**00:00** Zezen suzkoa, Erreboteko plazan.  
**00:00** Dantzaldia, Tximeleta taldea.

## Uztailak 31

**OSTIRALA**  
**SAN INAZIO EGUNA**  
**08:00** Diana, dultzaineroek alaituta.  
**10:30** Ur parkea, Txistulari plazan.  
**11:30** Villabona-Hazparne, 86. errebote partida.  
**12:00** Elkarteen arteko marmitako lehiaketa, Berdura plazan.  
**12:30** Aniztasunaren kantujira, Banaiga Band taldearen eskutik.  
**17:00** Erraldoi eta buruhandien kalejira, dultzaineroek alaituta.  
**18:00** Sokamuturra, Erreboteko plazan, dultzainero taldeak alaituta.  
**20:30** Disko festa, Erreboteko plazan, Oihan Vegarekin.  
**23:00** Santioak iruditan: Herritarrek helarazitako argazkien proiektzioa, Erreboteko plazan.  
**00:00** Dantzaldia, Iratzar taldearekin, Erreboteko plazan.  
**00:30** 80-90 hamarkadetako musikako DJ emanaldia, osasun zentroaren inguruan.

### IZEN EMATEAK

#### HERRI AFARIA

Uztailaren 21etik 23ra, 08:00etatik 11:00tara, Udaleko kultura saileko bulegoan.

#### HERRI KROSA

Uztailaren 25ean, 09:00etatik aurrera Zumbeltzen edota herrikrossa.com gunean.

#### IRRISTAKETA LASTERKETA:

Uztailaren 26an bertan, 09:00etatik aurrera Eroski aurrean.

#### ZUMBA KLASE HERRIKOIA

Nahi duen ororentzat irekia. Nahikoa da 16:00etarako Txistulari plazara gerturatzea.

#### CYCLING MINI MARATOIA

Uztailaren 22ra arte Olaederra kiroldegiko harreran. Ordubetz edo bi orduz aritzeko eman daiteke izena.

#### KOADRILEN BAZKARIA

Uztailaren 21etik 23ra, 08:00etatik 11:00tara, kultura saileko bulegoan. Koadrilen bazkaria eguraldiaren arabera, Etxeondon edo Txermingen izango da. Erabaki hori hartzeko, bile-rra egingo da uztailaren 30ean udaltxeko arkupeetan goizeko 11:30ean. Aulkiak eta mahaiaik, ohi denez, eguerdiko 12:00etan banatuko dira, izen-ematearen hurrenkera errespetatuz.

## Uztailak 28

### ASTEARTEA

#### GAZTE ETA JUBILATUEN EGUNA

**10:00** Toka txapelketa, Salbadora jubilatuen etxearen eskutik, Olaederra kiroldegian ondoan.  
**11:00** Jubilatuen esku-lanen eta margoen erakusketa, Berdura plazan.  
**11:00** Animalien ikuskizunak, Gorritirekin, Olaederra kiroldegian ondoan.  
**14:00** Jubilatuen bazkaria, eta ondoren dantzaldia Xabier Zubeldia eta

## Uztailak 29

### ASTEAZKENA, ATSEDEN EGUNA

## Uztailak 30

### OSTEGUNA, KOADRILEN EGUNA

**14:30** Koadrilen bazkaria, Etxeondoko parkean.  
**17:00** Koadrilen kalejira, Incansables txarangarekin.



**villabona**  
optika  
audiologia

Villabona Optika Audiologia  
zugandik gertu

- ✓ %25eko deskontua 2. audifonoan.
- ✓ 5 urte arte bermea luzatzeko aukera.
- ✓ 12 hilabetetan finantziatzeko aukera.

Ondo pasa festetani!



Deitu eta hartu txanda konpromezurik gabe

**Kale Berria 23A**  
**Villabona**  
**943 111 840**

Jai zoriontsuak igaro

# Iraola

Aholkularitza - Artezkaritza

**Kale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA - Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774**

**ENPRESEN  
AHOLKULARITZA**

Fiskala, dirukontuena,  
juridikoa, laborala,  
aseguru orokorrak

# BENITO

HARATEGIA - URDAITEGIA

Gora Santio jaiak

Arroa Kalea, 4 - VILLABONA  
© 943 691 350

## Jaien eguneroko jarraipena aiurri.eus webgunean

Urtero bezala, Santio festen gertuko jarraipena egingo du Aiurri aldizkariak [www.aiurri.com](http://www.aiurri.com) gunean nahiz Flickr, Youtube, Facebook eta Twi-

tter sareetan. Bertan festetako ekin-tzen berri azaltzearekin batera, argazki eta bideoak ere ikusi ahal izango dira.

## Jaietako argazkiak ikusteko aukera Errebote plazan

Aurten, bigarren aldiz, Santio festetako ekintzak eta jai giroa biltzen dituen argazkien proiektzioa egingo da Errebote plazan festak amaitu aurretik. Emanaldi hori osatzeko argazkiak herritarrek bidali behar dituzte Santioek irauten duten aste osoan zehar. Iaz arrakasta beroa izan zuen ekimenak eta herritarrek argazki ugari bidaltzearekin batera, jende asko elkartu zen festek utzitakoa irudi

bidez ikustera. Argazkiak bidaltzeko bi bide dituzte herritarrek.

**Email:** [santioakirudietan@gmail.com](mailto:santioakirudietan@gmail.com)

**Whatsapez:** 606455795

**Jai guztietako argazkiak:**

Uztailaren 24ko arratsaldeko 16:00etatik uztailaren 31ko arratsaldeko 19:30ak arte bidali ahal izango dira argazkiak.

## Lain eta Esne Beltza taldeen kontzertua hilaren 28an



Uztailaren 28an, Gazte egunaren baitan, Lain eta Esne Beltza taldeek eskainiko dituzte gaueko kontzertuak. Taldeen aukeraketa modu berezian

egin da aurtengoan, izan ere gogoko taldearen alde bozkatzeko aukera izan baitute herritarrek. Apirilaren amaieran egin zen bozketan 328 bozka jaso ziren. Horietatik 102 jaso zituen Lain taldeak, 78 Esne Beltzak. Ondorioz, lehen postuak eskuratu zituzten taldeak arituko dira 23:00etan abiatuko den kontzertuen gauean.

Lain taldeko kideetako ugari herrikoak izanik eta 'Tximeletak' euren azken lana kaleratu berrian, nahiz herriz herri eta hiriz hiri plaza eta aretoak dantzan jartzen dituen Esne Beltza taldeek Errebote plaza ondo baino hobeto girotuko dutela aurreikus daiteke, beraz.

# Remi gogoan, uztailaren 31n

**REMI GOGOAN EKIMENAK HERRIKIDEA GOGOAN IZANGO DU, HAREN HERRIOTZAREN SEIGARRREN URTEURRENEAN.**



**“Herrian zureganako maitasuna zenbaterainokoa zen argi geratu zitzaigun Remi”**

**O**rain sei urte, 2009ko uztailaren 31n, presoen aldeko elkarretaratzean Ertzaintzarekin izandako ika-miken ondoren zendu zen Remi Ayestaran zinegotzi billabonatarra. Geroztik, urtero gogoan izan da Remi festetako azken egunean, Remi Gogoan ekimenak bere izena duen gertaera tokian bertan omenaldia eskaintzen diolarik. Aurten, bada, omenaldi hori festetako egitarautik kanpo geratu da eta Remi Gogoan ekimenak erabaki hori salatu asmoz, agerraldia egin zuen uztailaren 15ean, Remi Ayestaran pasealekuan. Ondorengo idatzia irakurri zuten, herritar ugariren babesean eta, urtero bezala, uztailaren 31n Remi gogoan mantentzeko omenaldira gonbidatu zituzten herritarrek: “Urtero moduan Remiri omenaldia antolatzeko prestaketa lanetan ari ginela, harridura eta haserrea eragin digun albistea jaso dugu aurten. Udal gobernu berriak Remiren aldeko omenaldia jai egitarautik kentzeko erabakia hartu duela, aldebarrez, inori ezer esan gabe, jai batzor-

dean onartutakoaren kontra eta alkate dekretuz. Ezin sinetsita eta arduratuta geratu ginen. Are gehiago, gaur gaurkoz, oraindik ez dugu jaso inolako jakinerazpenik Udalaren aldetik. Baina guk ez dugu etsiko. Aurten ere, uztailaren 31n Remiren izena eta izana gogoratzeko ekitaldia gauzatuko dugu, inori ez diogulako Remi ahanzturara eramaten utziko! Uztailaren 31 hartan udal hautetsi gisa, herriak aukeratutako ordezkari gisa ari zen lanean, jai gunean Ertzaintzaren presentziak eragiten zuen tentsioa haratago joan ez zedin eta jaiak bakean amaitu zitezten. Baina ez zioten utzi! Bihotza leherrarazi zioten! Zer gutxiago beraz, jaien barruan, egitarau ofizialaren baitan, haren ahalegina oroitu eta herri honen alde egin zuen lana omentzea baino? Nori egiten dio kalte egia jakiteak? Guk ez dugu urteotan mendeku gosez jokatu, egia, justizia errekonozimendua eta erreparazioa eskatu ditugu, besterik ez, baina gutxiago ere ez! Horregatik EAJ-ko udal taldearen jarrera gogor salatu nahi dugu. Zauriak itxi eta herri honek etorkizunera begiratzeko bidean, EAJ-k hartu duen erabakia traba baino ez dela uste baitugu.

Herrian zureganako maitasuna zenbaterainokoa zen argi geratu zitzaigun Remi, liburua idatzi genuenean edota urtero zure omenaldia prestatzerakoan laguntza eske joaten garenean. Denek baiezkoa ematen digute berehala, muxutruk. Herriatik sortutako ekitaldia izaten baita. Herriak zuri eskainitakoa.

Hortaz, aurten ere hilaren 31n, iluntzeko 20:00etan, zure izena daraman ibilbidean hitzordu bat dugu denok!”

*Boutique*  
**MP**  
*Ondo pasa Santiotan!*  
Kale Berria, 12 - Villabona  
943 690 865

**OGI ZURI** **OGI GOXO** *Ondo pasa jaietan*

<b>OKINDEGIA, S.L.</b> Lizarrate-eta, 32. Elizmendi auzoa. ASTEASU ☎ 943 691 896	<b>OGI-ZURI</b> Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL ☎ 943 691 000	<b>OGI-GOXO</b> Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294
---	--	--

**Ogi berezi eta artisauak - Etxerainoko zerbitzua**

# Dultzaina doinuekin dantzan

**ERRALDOI ETA IPOTXEN KONPARTSAK ETA LOATZO MUSIKA ESKOLAKO DULTZAINEROEK EMANALDI BATERATUA ESKAINIKO DUTE PLAZAN, JAIEN HASIERAKO SUZIRIA LEHERTU ETA KALEJIRARI EGIN AURRETIK.**

Uztailaren 24ko txupinazoaren ostean, erraldoi eta buruhandien lehen kalejirari eman ohi zaio irteera. Aurtengoan, hainbat aldaketa izango da; erraldoi eta buruhandien konpartsa osatuz, Pepita esne-saltzailea eta Santio udaltzaina irudikatzen dituzten ipotxak ere kaleratuko baitira haiekin batera. Sarreran aipatu bezala, festetako lehen kalejirari hasiera eman aurretik, txupinazoa jaurti eta gutxira emanaldi bateratua eskainiko dute erraldoi eta ipotxek Loatzo musika eskolako dultzaineroek jotako bi doinu Errebote plazan dantzatzuz. Zortzi izeneko baltsa izango da horietako bat eta Baserritarrak izeneko fandangoa bigarrena, biak ere baltsa erara dantzatzuko dituztenak. Musikari nahiz ezohiko dantzariak entsegetan buru-belarri murgilduta dabilta emanaldi bateratua prestatzen.

## BURUHANDI, ERRALDOI ETA IPOTXAK

Eta nondik sortu den ideia hori? Bada, "herritarrentzat zer edo zer ezberdina egin nahi genuen, ikuskizun moduan", azaldu du duela zortzi urtez geroztik Villabonako erraldoiak dantzan jartzen dituen Ander Nuñezek. Lau erraldoi eta beste lau buruhandik osatzen zuten konpartsak, bi ipotx dotore izango ditu lagun aurrerantzean. Ostegun gizen eguneko kalejira koloretsuan aurkeztu zituzten ipotxak herritarren aurrean eta geroztik, Behar Zana elkartearen festan, Senidetze egunean edota Donostian Gure Esku Dago ekimenak antolatuta ekitaldian hartu dute parte. Ipotxaren barruan ibili ohi den Joxean Altunak adierazi bezala, "oso harrera ona izan dute bai herrian eta baita Donostian ere. Jendea argazkiak egitera gerturatu zaigu behin baino gehiagotan". Eneko Gorostidi billabonatarrek hogeitau urte daramatza erraldoia dantzatzuz eta ipotxaren baitan ibili ondoren, "erraldoiaren egitura askoz ere pisutsuagoa denez, nekagarriagoa da hura mugitzea, baina ipotxak beira-zuntzarekin eginak daude eta askoz ere itxiagoak direnez,



Julian Yarza, Iyuya Urrutia, Kepa Otegi eta Iñigo Arin dultzaineroak. Eneko Gorostidi, Joxean Altuna eta Ander Nuñez konpartsa kideak.

bero handiagoa izaten da haien barruan", argitu du.

Buruhandien paperean gaztetxoak ibiltzen dira kalez kale, maskuria eskuan, haurrak zirikatuz. Erraldoiak eta ipotxak ibilbide guztian zehar dantzan ibiltzeko, berriz, hamar bat lagun be-

harko liratekela aipatu du Joxeanek, erraldoien kasuan bederen, kantuz kantuz dantzaria aldatu egiten baitute, pasada handiegia litzatekeelako bestela. Dei egin du erraldoi eta ipotxak dantzan jartzeko taldera jendea animatzen, "baita neskak ere, orain artean denak



Sustatzaileek herritarrak erraldoi eta ipotxak dantzan jartzeko taldera hurbiltzera animatu dituzte.

## DIANAK

Uztailak 25. 08:00. Txistulariekin.  
Uztailak 26. 09:00. Dultzaineroekin.  
Uztailak 31. 08:00. Dultzaineroekin.

## ERRALDOI, IPOTX ETA BURUHANDIAK

Uztailak 24. 18:15. Dultzaineroekin.  
Uztailak 25. 12:30. Konpartsaekin.  
Uztailak 27. 19:30. Dultzaineroekin.  
Uztailak 31. 18:00. Dultzaineroekin.

mutilak izan baikara eta ipotxek, bereziki, ez baitute pisu handirik".

## DULTZAINEROAK, KALEZ KALE

Loatzo musika eskolako dultzaina taldean hamar dultzainero biltzen da eta bi urte daramatzate talde gisa. Guztira, Euskal Herriko zazpi doinu prestatu dituzte Santio festetan kalez kale jotzeko. Villabonako festetan buruhandiekin batera nahiz goizeko dianan arituko diren lehenengo aldia izango da, baina Iyuya Urrutia taldekideak aipatu bezala, "herrian bertan hainbat ekimen ezberdinetan hartu dugu aurrez parte: Korrika herrira iritsi aurretik, Xixili egunean, Joste eguneko festan..., eta gustura aritzen gara". Iñigo Arin eta Kepa Otegi taldeko gazteek prestatuta lanetan gustura ari direla azaldu dute, "dagoneko ikasi ditugu kantuak eta kalean jotzeko gogotsu gaude, etxean baino gusturago jotzen baita kalean dultzaina". Erraldoi eta buruhandien konpartsaekin ez ezik, goizean goizeko dianan, herritarrak esnatu eta festara atera daitezzen gonbidatuz, dultzaina joz hartuko dute parte aurtengoan. Julian Yarza dultzaineroaren hitzetan, "betiko ohitura izan da txistularien diana Villabonan. Egun batzuetan txistulariek eta beste batzuetan guk hartuko dugu parte goizeko dianan. Dultzainaren hotsa ezberdina da, fuertagoa. Kaleko musika-tresna da eta indar handia duenez, urrutitik ere entzuten da. Nire ustez, goizeko dultzaina oso polita da, alai, festarako oso aproposa".

**SANHATSA**  
BELAR-DENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA  
*Jai zoriontsuak igaro*  
**KONTSULTA NATURISTA**  
Kale Berria, 50 - Villabona - Tel.: 943 694 279

**Sanz**  
MARGOAK  
Pinturak orokorrean  
Fatxaden birgaitze lanak  
**GORA SANTIOAK!!**  
Sergio Sanz Gorostidi  
589 646 579 / 943 690 568  
info@pinturasanz.es  
www.pinturasanz.es  
Villabona

# Azal lehiaketaren irabazle, bigarrenenez

**BIGARREN URTEZ IRABAZI DU JON ANDER ARTOLA BILLABONATARRAK SANTIOTAKO EGITARAUAREN AZAL LEHIAKETA. IRUDI ALAI ETA KOLORETSUA EGIN DU, FESTETAKO EZAUGARRIAK ILUSTRAZIO EZBERDINETAN BILDUZ.**



Bigarren urtez jarraian irabazi du Santiotako azala diseinatzeko lehiaketa.

**H**amabost lan aurkeztu dira aurtengoan Villabonako Udalak Santiotako egitarauaren azala aukeratzeko antolatutako ohi duen lehiaketara. Jon Ander Artola billabonatarrak bigarren urtez jarraian jaso du lehen saria eskuratu duela jakinarazi dion deia. Eta nola ez, pozarren hartu du erabakiaren berri. “Halako sariak jasotzea ohorea da niretzat eta zer esanik ez herrian bertan”, aitortu du. Iaz ere zorte hori bera izan zuen eta beretzat oso pozgarria izan zen berak egindako irudia kaleko karteletan ikustea. Aurtengo lanaren bidez, jendearekin interaktibitatea lortu nahi izan du. “Koloreen bidez alaitasuna islatzen saiatu nahiz eta ilustrazio txukunen bidez festetako hainbat ezaugarriren berri eman dut. Hainbatek jeroglifiko itxura duela esan dit eta, bai, horixe zen nire asmoa: informazio guztia lehen begiratuan ez ematea”, gaineratu du.

Aurten beste lehiaketa batzuetara ere aurkeztu ditu bere lanak, tartean Iruñeko San Ferminetakora. Hori bai, bere lanak irizpide batzuen arabera erabakia epaimahaiak hartzen duen lehiaketara aurkeztea gustatzen zaio. Duela hiru urte, esaterako, Anoetako Anitz dantza taldeak abian jarritako izen eta logotipo lehiaketa irabazi zuen eta orduz geroztik berak osatutako irudia erabiltzen du dantza taldeak.

**“Halako sariak jasotzea ohorea da niretzat eta zer esanik ez herrian bertan”**

Irunen diseinugintza grafikoaren laugarren urtea ikasten bukatu berri du eta proiektua gauzatzea besterik ez zaio gertatzen ikasketak amaitzeko. Dagoeneko hainbat lan egiteko proposamenak jaso ditu lagunaren nahiz Facebooken bere izenean duen kontuaren bidez eta pozik dago pausoz pauso diseinugintzaren mundu errealean sartzen ari delako. Etorkizunean logotipoak edota identitate ezberdinak osatuz, branding lanetan aritzea gustatuko litzaioke. Artea eta diseinua ezberdindu egiten ditu eta “diseinatzailearen lana bezeroek nahi duten diseinuarekin haien beharrak bete eta funtzionala izatea da”, adierazi du Jon Anderrek.

## POLAROIDAREKIN:

### Santiozalea al zara?

Bai, txikitatik, denak bezala. Herriko festetan parte hartzea gustatzen zait. Santioen zain nago, baina Garagardo azokaren zain aurrena. Uztaila bete-bete izaten dugu Villabonan.

### Zein ekintzatan hartuko duzu parte?

Lehen eguneko futbol torneoaren antolaketan lehenik, danborradan, gazte egunaren antolaketan, koadrilen egunaren edota pilotari naizen aldetik, uztailaren 31ko Errebote partidaren... Ahal dudana ekintza guztietan. Bi urtez tabernan lanean aritu naiz festetan, baina aurten jai dudanez, disfrutatzen saiatuko naiz.

### Zeinetara ez duzu hutsik egingo?

Zezenetara eta kontzertuetara. Musika-zalea naiz eta gazte eguneko kontzertuek erakartzen naute gehien, gainerakoak dantzaldi eta emanaldiak izaten

baitira gehiago. Horiek ere gustatzen zaizkit, baina kontzertuak bereziki. Lain eta Esne Beltza taldeak arituko dira aurten. Aukeraketa berezia izan da, gainera: herritarrek bozka bidez aukeratu ditugu taldeak lehen aldiz. Herritarren iritzia kontuan hartzea ondo iruditzen zait eta aurten musika taldeak bezala, agian datozen urteetan beste alor batzuk bozkatuko dira.

### Zer nabarmenduko zenuke egitarautik?

Festetako egunik garrantzitsuenak koadrilen eguna izaten da. Etxe-Ondora bakoi-tza bere koadrilararekin joaten bada ere, denak nahastu egiten dira bazkalondoan eta hori, berde, urdin..., kolore ezberdinetako kamisetak nahastuta etortzen dira arratsaldean txarangarekin batera. Oso egun aberasgarria da, adin ezberdinetako jendea elkarrekin ibiltzen baita eta nahasketa horixe da festetako ekintzarik onena. Aurten konpartsa herrikoia ere izango da eta ekimen hori ere oso polita da, sortzen den giroaz gain, aurreko arrazoi berberetatik.

### Gaua ala eguna nahiago jaietan?

Egunean zehar ekintza interesgarriak egin ohi dira, baina gazte bezala, gaua nahiago dut festarako.

### Festetan edateko? Eta jateko?

Sagardoa edateko eta bokata jateko. Lagunartean bokata jan orduko, jai giroan murgiltzen baikara.

### Mezuren bat herritarrei?

Urteko momentu txar edo ez hain onak alde batera utzi eta aste horretan ondo pasa dezatela lagunekin, irribarre egin ez. Barrua askatzeko zazpi egun ditugu eta aprobetxatu egin behar dira.

### Festak eta gero, zer?

Oporrak izango ditut. Festak amaitutakoan Villabona oso triste geratzen denez, abuztuaren hasieran Errioxara joango naiz egun batzuk pasa eta kirol pixka bat egin, festetan hartutakoak botatzera.

**OR-KONPON**  
t a b e r n a

Gora Santioak

Nagusi berriak

- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Asteburutako menua
- Bokatak
- Berezitasuna: **Bakailaoa pil-pil erara**

Kalea Berria, 54 - Villabona. Tel.: 943 04 39 39

**ERROITZ**

www.erroitz.net

Hedabideak sortu, garatu eta kudeatu.

Diseinu eta banaketa lanak

**ARJINDU**  
FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA

943 69 31 13

Ondo pasa festetan!

Errota, 7-behea 20150 Villabona

OSTIRALEAN HASI ETA IGANDERA ARTE JAIK KARRIKA AUZUNEAN

# Coron Dominguez familia, Karrikako jaien arima

Karrikako jaiak norbaitentzat bereziak badira, Coron Dominguez familia aipatu behar da ezinbestean. Play-backean, danborradan, sardina jatean... antola-

tzaile nahiz parte hartzaile gisa ez dute ekitaldirik galtzen. Play-backean, urtero-urtero, familia osoak aparteko showa eskaintzen du.

## Badatozela Karrikako jaiak...

**Begoña Coron:** Bai. Egia esanda, ikusi egin behar da gure familia nola jartzen den mugimenduan bi aste lehenago! Barruko har hori mugitzen hasten zaigu, eta nork bere aldetik ekiten dio zereginen bati; jantziak eta zapiak plantxatu, sukaldeko mantalak prestatu, sardinak erretzeko egurra erosi...

Familiarekin Anoetan bizi naiz ni; ahizpa eta bere familia, berriz, Tolosan. Baina denok, asteburu osorako gurasoen etxera etortzen gara. Karrikako okupak gara jaiak irauten duten bitartean.

## Play-backerako jada prestatu al duzue ikuskizuna?

**B.C.** Bai zera! Orain hiru urte egin genuen ijito eta guardia zibilen inguruko koreografia ez beste guztietan, inprobisazio askorekin ibili izan gara beti. Ez daukagu erremedioirik! Urtean zehar, "aurtengoa denboraz prestatu behar dugu, denboraz!", esaten diegu elkarri, baina keba, ez gara kapazak! Jaietako igandean bertan ahizpari eta bioi bururatzen zaiguna antolatzen dugu; gu txapelketarako tortilla egiten eta etxeko gizonak tokan jokatzen ari diren bitartean hain zuzen. Behin ideia eta koreografia biribilduta, sardinen erretzaile den Aritz bizilagunarengana jotzen dugu, nahi dugun musika-pieza lor dezan. Iaz, adibidez, horrelaxe osatu genuen Heidi eta ahuntzen ikuskizuna.

## Etzeko umeek ere jaiarekiko zaletasunari heldu diote.

**B.C.** Auzoko jaiarekiko gogo transmititu egin zaie; bestela ere, etxean bizitzen den giroaz kutsatuta geratuko lirarteke. Play-backeko ikusleak harrituta geratu ohi dira Enetzekin, taula gainean naturaltasunez mugitzen delako; jakina, txikitxikitatik ohitu dugu ikuskizunaren parte izatera! Lur, bere



Rosi Dominguez (ama), Karol (alaba), Imanol eta Joseba (suiak). Behean, Leandro Coron (aita), Enetz (biloba) eta Begoña (alaba).



Begoña Coron.

aldetik, jaio eta hilabete gutxirekin igo genuen oholtzara, besoetan hartuta. Horrekin dena esana dago.

## Play-backa izango da zuretzat jaietako ekitaldirik kuttunena, ala?

**B.C.** Etzazula pentsa! Danborradarekin gozaten dut beste ezerekin baino gehiago. Txikitxikitatik izan naiz partaide bertan, ludotekako haurrak ginenetik eta antolatzen hasi zirenetik. Karrikan bertan egindako haurtzarora eta gaztarora eta auzoko bizilagunen arteko bizikidetzeta eta lagun giroa

danborradarekin identifikatzen ditut, ez dakit zergatik den. Azken urteetan, danborra jotzea ia-ia aitzakia izaten da, zirkunstanzia ezberdinak direla medio auzotik kanpo bizi garenok bil gaitzen eta larunbat gaueko jaia elkarrekin ospa dezagun. Jaiokura itzultze horrek, badauka bere xarma.

## Beste ekitaldiren bat, zuretzat berezia dena?

**B.C.** Tortilla lehiaketak, toka txapelketak eta sagardo dastaketak osatzen duten igande eguerdiak izugarri asebetetzen nau, nahiz eta ez izan beste zenbait ekitaldi bezain ezagun eta jendetsua.

## Nola ikusten duzu Karrikako jaien osasuna?

**B.C.** Jai xume bezain politikak dira, auzo zein auzotarren nortasunaren isla. Azken urteotan desagertu ez izana da harrigarriena! Orain laupabost urte, ikusita jendeak ez zuela antolaketan parte hartzen behar adina, bertan behera geratu ziren. Txanda hartan, auzoko askok kexatuz erreakzionatu zuten, baina horretan geratu zen ezinegona: kexatu bai, baina beren burua hurrengo urteko

antolaketan parte hartzeko aurkeztu ez. Jendeak pozik hartzen ditu jaiak, baina bestalde, ez dakit oihartzen den zenbaterainoko ahalegina eskatzen duen bera antolatzeak. Dena errazago izango litzateke, auzoko mordoxka bat kolaboratzaile izatera prestatuko balitz; daukagunetik eta dakigunetik zerbait emango bage nu, ekitaldiren batean eta une jakinen batean, alegia.

Azken urtetan, gainera, antolaketa lanetan zebiltzan zenbait emakume ama izan dira, eta ardurak utzi behar izan dituzte. Nork hartu horiek utzitako tokia? Gazteak nekez inplikatzeko dira... Zailtasunak zailtasun, jaiak aurrera doaz.

## Elkartasuna Carlos Garciari

Espainiatik egin duten estradizio eskaeraren aurrean, Andoaingo EH Bilduk elkartasuna adierazi dio Erromako espetxean isolamendu egoeran dagoen Carlos Garcia herrikideari.

### Postontzia,

### EH Bilduren oharra:

"Carlos Garcia, une honetan Erromako espetxe batean isolamendu egoeran dagoen andoaindarra da. Datorren uztailaren 16an, Erromako epaitegi batek Espainiatik egin duten estradizio eskaera aztertuko du, eta horrek aurrera eginez gero, espainiaratu eta 2001etik ezarrita duen 16 urteko espetxe zigorra bete beharko du.

Carlos Garcia 1997 urtean atxilotu zuen Ertzaintzak, Laboral-Kutxaren egoitza erreteza leporatuta. Prozedura judicial osoa eskandalu hutsa izan zen, inolako taxuzko frogarik gabe aurrera eramandakoa. Carlosek bere errugabetasuna aldarrikatu bazuen ere, nahikoa izan zen lekuko batek komisaldegian egindako deklarazioa kondenatua izateko; eta ez nolanhiko kondena, gainera: 16 urteko espetxe zigorra baten sukurtsal bat erretzeagatik.

Kondena bidegabe horren aurrean, ihesari eman zion Carlosek, eta urte askoan bere senide eta lagunak bere berririk izan gabe egon ostean, Erroman atxilotu zuten joan zen otsailean. Bertan, bere bikote eta semearekin bizitza arrunta egiten ari zela jakin genuen orduan. Lerro hauetatik, gure elkartasuna adierazi nahi diegu Carlosi eta bere gertuko guztiei. Bidegabekeri honen aurrean gure kezka eta desadostasuna azaltzeaz gain, Carlosen kasuan behin-betiko justizia egin dadila eskatu nahi dugu, berehala aske gera dadin eta judicialki bere egoera konpon dadin".



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



JOXEBA LIZEAGA • MEXIKO

## Herria maitatzeko era asko daude

**D**enbora bat atzerrian daramazunean, barne iraultza moduko batek herrimina sentitzera eramaten zaitu. Denek ez dugu neurri edo intentsitate berdinarekin sentitzen, edo gutxienez, adierazten. Agian, ez delako batere erraza herrimina sentitzen dela onartzea bera. Zure jendea ikusi gabe zaudenean, zure gustuko hainbat gauza egin ezinik aurkitzen zarenean, goizetan pertsiara irekitzean ikusten zenuen paisaia faltan botatzen duzunean, euskaraz hitz egiteko alboan inor ez duzunean, lanbroak azala nola bustitzen dizun sentitu nahiko zenukeen... guzti hori, maite duzun jendeari aitortzea, ez da, ez, batere erraza. Beraiek, zuegandik entzun nahi duten gauza bakarria "ondo nago" baita, agian, horrela, beraiek ere hobeto sentitzen direlako.

Nork bere erroak sentitzea munduko gauzik naturalenetakoa dela esatera ausartuko nintzateke. Beraz, nik behintzat, harrotasunez esan nahi dizut, herrimina sentitzen dudala. Agian, lehenago herripoza bizitzea zer den ikasi nuelako, familiarekin, lagunekin, euskal kulturaren mundutxoan murgildutakoan, edota, antzerkiarekin, batukada taldearekin eta jai batzordean.

Eta ondo gogoan dut, uztaile dela herriko jaiak, Sanmielak, prestatzeko hilabeterik nagusia. Norbaitek pentsatzen bazuen, jai egitaraua irailaren erdialdera, bat batean, zerutik erortzen dela, edota, Udalak, magoek untxiak bezala, txisteratik ateratzen duela, esango diot ezetz. Jai egitarauen "atzean", batez ere, herriko mota guztietako elkarteetako kideek, borondatez, muxutruk, egindako lan izugarria dagoela.

Bai, ondo gogoan ditut jaien antolakuntzan bizituta-

*"Ez litzake batere gaizki egongo Sanmieletako Jai Batzordearen (bere osotasunean) lan itzela goraiatzea"*

ko une gazi eta gozoak. Ilusioz beteta antolatutako ekitaldiak, beste elkarteekin adostasunetara iristeko lana, eta baita ere, zertarako ezkutatu, turnoko zinegotzi edo kultur teknikariren baten zapuzkeriak jasan beharrak sortutako tentsio uneak. Hori bai, batzuetan, jai batzordearen bilerek, "Aquí no hay quien viva"ko komunitatearen antza hartu izanagatik, azkenean, jaiak beti aurrera atera izan dira, eta urtez urte hobetuz, eta herrikoia gozatzeko izanez, gainera.

Ildatzitxo honen izenburuan aipatzen dudan moduan, herria maitatzeko era asko daude, horietako bat, eta ez ximplea, herriko jaiak, eta urtean zehar mota guztietako beste hainbat ekitaldi antolatzea da. Denbora, eta dirua ere, hainbat kasutan, poltsikotik jarriaz, eta behar baino gehiagotan hainbaten esker txarra ordainetan jasoaz. Ez dakit, Udalak dagoeneko erabaki duen Sanmiel egunean nor omendu. Iruditzen zait, ez litzakeela batere gaizki egongo jai batzordearen (bere osotasunean) lan itzela goraiatzea.

Gaurkoan, Sanmielak gogoratuaz, nire nostalgiatxoari izen-abizenak jarri dizkiodan honetan, eta nire egia batzuk aitortu ondoren, espero dut, laster, udazkenarekin batera, aurtengo Sanmieletan, zurekin, zuekin Urnietako festagunean topatzeko aukera izatea, eta berriro, egun gutxi batzuetan bada ere, sentitzen dudan herrimin hau, herripoz bihurtzea. Uda zorientzua izan.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Grezia, paradisu eta infernu

*"Ozen esan beharra dago, greziarrak terrorismo instituzionalaren aurrean errebelatu egin dira"*

**G**rezia Mediterraneoko lurralderik ederreneetakoa da: argitsua, urez inguratuta, iriak harribitxiak bailiran...

Europako zibilizazio aberatsenetakoa da: Arte ederretan, eskulturan, pinturan, filosofian, pentsamoldeetan. Hainbat eta hainbat alorretan ispilu eta aitzindari. Zibilizazio aberatsa, benetan. Turismo aldetik badago non aukeratu, batetik bestera joateko itsasontzia ere aproposa da. Lurralde gisa paradisu.

Lurraldea kudeatzerakoan, ordea, politika egiterakoan kudeatzaileek ez dituzte gauzak ondo egiten. Han ere, bakar batzuk ustelkeriaren bidez aberastu dira, zorra ugarituz eta azkenean, herriak pairatu behar izan ditu ondorioak, alegia, miseria gorria eta horrek dakarren bizimodua. Eskuina zen nagusi azken aldira, "Nueva Democracia" deituriko indarra, eta hemen gertatu ohi den bezala, Europaren aginduetara makurtuz, murrizketa ugari egin zituzten. Hainbeste ezen herriak ezin izan zuen gehiago eta hauteskundeak deitu zituzten. Horrelako egoeretan gertatu ohi denez, populazioak ezkereruntz jo zuen eta Syrizarak irabazi zituen hauteskundeak. Herriarregan poza eta ilusioa berpiztu ziren. Tsiprasek, alta, bere aginduak bete ahal izateko orduan, Europako harresiaren topo egin zuen. Eta hor hasten da paradisuetik infernura bidea. Tsiprasek maila handiko gobernua osatu zuen; Varoufakis finantza ministroa esaterako. Joan etorri asko egin dituzte Europara. Zorra hain da handia ezen ezin zuten ordaindu eta derrigorrez negoziat-

tu behar. Alemania orain harro harro dabil baina ez da ahaztu behar Alemaniari Europako beste herrialdeek bigarren mundu gerra bukatu ondoren zorra barkatu ziotela. Memoria ahula dute, nonbait, alemaniarrek. Hor ibili dira negoziatzen baina Eurotaldekoak behin eta berriz, belauniko jarrauzi dituzte greziarrak eta, hauek erreferenduma egitera beharturik aurkitu ziren. Herriak erantzun zuen eta, gehiengoz, ezezkoa atera zen, alegia, Europako erreformei ezezko borobila. Ezer gutxirako balio izan dio Tsiprasi herritarren ezezkoak. Jarraitu dute elkarrizketek, baina egunez egun, Greziako gobernua zapalduta, umiliatua izan da. Benetako terrorismo moduekin kolpe kolpe makurtu dute duintasuna lapurtu arte. Ikusi denez, alemaniarrek -Kristau Demokrazia deituko dira gero kolpe honen aitzindari izan dira. Eta azkenez, gaur jakin dugu akordio batera iritsi direla, akordio baino gehiago inposaketa esango nuke nik. 75 ordu eman dizkiote legeak aldatu eta neurri gogorak martxan jartzeko, hala nola: pentsioak, BEZA, pribatizazioak etab. Umiliazio handiagorik! Hauek dira kate luze honen ondorio krudelak. Tsiprasen alderdiaren barnean izanen dira hausturak eta, nire irudiko, hauteskunde berrien atarian gaude. Baina, nik uste geratutakoaren aurrean hausnarketa egin behar dela azalean geratzeko arriskua ekidituz.

1. Europar Batasunaren eskuin jokoan bistan geratu da. Ekonomiak bai, baina baita ideologiak ere zer ikusia izan

du arazo honen inguruan. Eta nik uste, azkar edo berandu izanen duela Europar bertan ondorioa. Europako ezkerrek lanean jarraitu behar du balizko beste Europa bat eraikitzen.

2. Greziar herriak eta agintariak jarrera duina eta etikoa agertu dute. Bai, ozenki esan beharra dago, terrorismo instituzionalaren aurrean errebelatu egin dira, eta beste balio batzuk jarri dituzte. Eta ez da gutxi gaur bizi dugun gizarte giroan. Miresten ditut Tsipras, Varoufakis eta hainbat intelektual zeintzuk beste akordio bat posible zela esan duten. Beste akordio bat giza balioetan oinarritua.

Elkartasun sentimenduaren eraginez Kavafis poeta greziarraren "Itacarako bidaia"ren zatitxo eskaini nahi nieke: "Itacarantz abiatzen zarenean bide luzea izan dadila eskatu behar duzu, abenturez bete, ezagupenez jantzia. Bidea luzea izan dadila eskatu behar duzu, egunsenti asko izan daitezela zure begiek ezagutzen ez zuten portuetan sartzeko, eta joan zaitezela jakintsuen hirietara. Izan bihotzean Itacaren ideia. Hara iritsi behar zara, hau da zure helmuga; baina ez bortxatu inoiz zure ibilbidea. Hobe da urte askotako bidaia izatea...". Aurrera Grezia!!!

Gaia aldatuz, Urnietari zorionak. 400 urte, erraz esaten da. Urnietan eman nituen haurtzaroko urterik onenak: Xoxoka, Oiarbi, Enbutegi, Idiazabal kaleko zelaia; San Juan plazako umetako bizipenak. Hainbat eta hainbat bizipen. Zorionak Urnietari! Aurrera egin ezazula tradizioak gaurkotuz, modernizatuz. XXI. mendean gaudela konturaturaz, eta ez XX.ean.

Uda on guztioi!

## DELTA K152 ANDOAINDIK NAFARROA ALDERA OINEZ



La Salle Berrozpe ikastetxetik oinez ibilaldi ederra antolatu dute. Uztailearen 1ean abiatu zen. Ibilaldiaren kontakizuna Igor Berek egin du internet sarean. Argazki gehiago La Salle Berrozpeko flickr gunean ikusgai daude.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Euskara Zuzendaritza



## KIROL ALBISTEAK

# Gaztañaga eta Arruti eskuz binakako txapeldunak



Finalak eta antolatzaileak elkarrekin, sari banaketa ekitaldia amaitu eta gero.

**J**oan den ostiralean jokatu ziren eskuz binakako XI. pilota txapelketako finalak Goiburun, Andoingo Gaztetxeak antolatzen duena. Gaztañaga-Arruti eta Loidi-Amondarain bikoteek nor baino nor jardun zuten finalean, eta lehena irten zen garaile, alde txikiarekin.

**GAZTAÑAGA-ARRUTI** 22  
**LOIDI-AMONDARAIN** 20

**FINALA.** Partida latza, jokaldi ikusgarriez jositakoa, Goiburu auzoko frontoira ostiral gauean arri-matu zirenek ikusi ahal izan zutena. Lau pilotariak izerdi franko atera zuten eta zartako ederrak eman eta gero pilotari. Loidi eta Amondarain aurretik joan ziren partidaren zati handi batean Loidik asmatu jokoan asmatu zuelako batez ere, baina hamazazpigarren tantoan berdindu ostean, partidak iraulketan jasan zuen.

Gaztañaga-Arruti bikotea sendoagoa zela erakutsi zuen kantxan, eta txapela lortu zuten azkenean, aurkariak 20 tantotan utzi eta gero.

**SANTA KRUTZ-JAUREGI**  
**USANDIZAGA-LOPEZ DE MUNAIN**

**3-4. POSTUA.** Santa Krutz-Jauregi eta Usandizaga-Lopez de Munainek osatutako bikoteek jokatu zuten hirugarren eta laugarren posturako partida. Lopez



Ikusle ugari hurbildu zen aurreko ostiralean, Goiburuko pilotalekura.



Gaztañaga pilotari emateko prest, Loidi eta Amondarain adi-adi daudela. Aurreko ostiraleko argazkiak eta bideoa internet sarean ikusgai daude.

de Munain beterranoa eta Usandizaga gaztea saiatu ziren gogotik, baina neurrak ez zen fina-

la bezain lehiatua gertatu, eta Santa Krutzek eta Jauregik irabazi zuten, alde handiarekin.

## Urnietako igerilekua zabalik

Urnietako igerileku irekia zabalik izango da uda osoan. Astelehenean igandera arte zabalik izaten da, egunero, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:30ak arte. Bazkide-

ak direnak txartelarekin sartzeko aukera dute. Ez direnak, ordea, sarrera ordaindu beharko dute; 21 urte artekoek 3'70 euro eta 21 urtetik gorakoek 6 euro.

## Tenisa eta igeriketa ikasgai Urnietan, uda honetan

Urnietako Udako Kiroldegia ikastaroak eskaintzen ditu uda osoan; horien artean nabarmenenak tenisa eta igeriketa ikastaroak dira. Ekaina amaieran lehen zikloak hasi baziren ere, oraindik bada ikastaroetan parte hartzeko aukera. Izan ere, uztailearen 27an hasiko dute hirugarren zikloa bi ikastaroek, abuztuaren 7ra arte luzatuko direnak. Horren ostean, abuztuaren 10etik 21era laugarren zikloa izango da. Oraindik izena emateko aukera zabalik dago, eta horrela jarraituko du ikastaroa hasi baino egun batzuk lehenago arte.

### TENIS IKASTAROAK

Adina: 4-5 / 6-7 / 8-9 / 10-12 / 13-16 eta helduak. Ordutegiak: 10:00-13:00; 16:00-19:00.

Taldeak: Gutxienez, 4 haur eta gehienez, 8 taldeko.

### IGERIKETA IKASTAROAK

Antolaketa mailaren arabera egingo da. Ordu erdikoak:

1. maila: 13:05-13:35; 3:40-14:10 | 2. maila: 11:50-12:20; 12:30-13:00 | 3. maila: 10:30-11:05; 11:10-11:45.

### IZEN-EMATEA:

943 008 328,  
Udal Kiroldegia.

## Kaletxiki-San Esteban abuztuaren 8an *Desapiyua*



Ziurrenik, bi auzoen arteko desafioko ikuslerik gehiena erakarriko duen ekitaldia izango da, San Estebango jaietan. Etxekoak irten ziren irabazle Kaletxikiko jaietan, uztailearen 5ean ospatu zen neurketan. Gehiago izan ziren Kaletxikiko kirolariak, nahiz segundo gutxiren aldearekin izan, eta harrezkero, errebantxaren eguna noiz etorriko zain geratu ziren Goiburuko neska eta mutilak.

Herri kirolak izango ditu oinarri desafioko orangoan ere, baina aldaketaren bat edo beste iragarri da. Ziurtatu diren kirolen artean, honakoak aipa daitezke: pirrin-

ka, lokotxak aletzea, jartzea eta biltzea, txinga, harria jasotzea eta txapel jaurtiketa.

Goiburuko auzotar ugari bilduko da beren ordezkariak animatzera, eta Kaletxikikoek ere jarraitzaile franko eramango dituzte goi paraje horretara. Afari batekin emango diote amaiera herri kirolen inguruko jaialdiari.

Batzuek irabazi, bestek irabazi, argi dagoena da Andoingo auzoen arteko desafiokoek jai txikien eredu aberastera etorri direla. Ezin aproposagoak dira ikuslegoari ikuskizun polita eskaintzeaz gain, auzoen eta bertako auzotarren arteko harremanak estutzeko.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
**Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugarteandia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

UZTAILAREN 17TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.com](mailto:andoain@aiurri.com)

## Jaiak

- Karrika, Andoain**
- **Uztailak 17, ostirala**
  - 19:00 Txupinazoa.
  - 19:15 Buruhandiak.
  - 19:30 Haur txokolatada.
  - 20:00 Sardin jatea.
  - 22:30 Karrika Fest: UK Bill, Highlights.
  - **Uztailak 18, larunbata**
  - 11:00 Haur ludoteka.
  - 11:00 Motozaleen bilkura.
  - 11:30 Haur puzgarriak.
  - 12:30 Paella lehiaketa.
  - 16:30 Haur puzgarriak.
  - 18:30 Apar festa.
  - 19:00 Kirol erakustaldia.
  - 20:30 Afaría.
  - 22:30 Danborrada.
  - 23:00 DJ Nemux. Diskofesta, baratxuri zopa.
  - **Uztailak 19, igandea**
  - 11:30 Meza.
  - 12:30 Patata tortilla eta sargardo dastaketa.
  - 12:45 Toka txapelketa.
  - 17:30 Play back saioa.
  - 19:30 Txorixo errea.
  - 20:30 Djak.
  - 23:00 Jaien amaiera.
  - **Etxeberrieta, Andoain**
  - **Uztailak 30, osteguna**
  - 17:00 Txupinazoa.
  - 17:30 Marrazki lehiaketa haurrentzat.
  - 18:00 Txokolatada.
  - 18:30 Apar-festa.
  - 20:00 Danborrada.
  - 22:30 Danborradako kideen afaría.
  - 23:00-04:00 D.J. Txingudi.
  - **Uztailak 31, ostirala**
  - 10:00 Kalejira.
  - 11:30 Meza Alberto Agirre abesbatzarekin.
  - 12:00 Kantujira.
  - 14:00 Bazkari herrikoia.
  - 20:00 Sardina-jatea.
  - 23:00-04:00 Ingo al deu?
  - **Abuztuak 1, larunbata**
  - 11:00-14:00 Haur parkea. Apar-festa.
  - 12:00 Patata tortilla txapelketa.
  - 16:00 Mus txapelketa Ikatzan.
  - 17:00 Haur jolasak.

- 17:30 Haur antzerkia eta txokolatada.
- 18:00 Sagardo dastaketa.
- 20:30 Afari merienda.
- 23:00-04:00 DJ Nemux.
- **Abuztuak 2, igandea**
- 10:00 Krosa eta Rosi Monteirori omenaldia.
- 18:00 Herri kirolak.
- 19:30 Toka txapelketa.
- 19:30 Txorizo-jatea.
- 20:30-22:30 La Jodedera.
- **San Esteban, Andoain**
- **Uztailak 31, ostirala**
- 06:00 Oilasko jokuaren hasiera.
- 14:30 Oilasko jokua. Gazteen bazkaria Txertotan eta ondoren trikitipoteoa.
- **Abuztuak 2, igandea**
- 22:30 Jaietako emateko suziri eta kanpaiak ermitatik.
- **Abuztuak 3, astelehena**
- 12:00 Meza ermitan abesbatzarekin. Ondoren hamaiketako.
- 12:30 Pilota desafioa Andoaingo eskolakoekin.
- 16:30 Lehen mus txapelketa. Izen ematea ordu erdi lehenago. Toka txapelketa eta haur txokoa plazan.
- 18:00 Baltzola anaiak.
- **Abuztuak 7, ostirala**
- 11:00 Ortzakako karobiarren piztea eta hamaiketako.
- 19:30 Kantu jira.
- 21:00 Auzo afaría. Txartelak salgai Urratsen eta Txertotan. Abuztuaren 2ra arte, 27 euro. Egunean bertan 32 euro. 12 urte arteko haurrak 17 euro. Ondoren, Unai Ormaetxea: "Abizen euskaldun 1".
- 00:00 Ingo al deu?.
- **Abuztuak 8, larunbata**
- 10:30 Malkar krosa. Goizen zehar III. azoka berezia auzoko plazan.
- 17:00 Labrador retriever

- zakurrekin "kopro" erakustaldia.
- 18:00 Desapiyua: San Esteban-Kaletxiki.
- 23:30 Gabenara taldea.
- **Abuztuak 9, igandea**
- 12:30 Pilota eskolako neska mutilen eskuzko eta palazko pilota partidak.
- Plazan bazkaltzeko aukera.
- 17:30 Patata tortilla, taloak eta sagardoa: Sarasola, Irigoien, Zabala, Otsua enea, Gaztañaga, Aburuza, Kalonge, Eguzkitza, Etxeberria, Larrarte.
- **Buruntzako Jaiak**
- **Abuztuak 8, larunbata**
- 06:00 Oilasko biltzea, auzoan barrena.
- 14:30 Oilasko biltzaileen bazkaria.
- **Abuztuak 15, larunbata**
- 10:00 Kros igoera.
- 20:30 Bertso afaría eta Elustondo anaiak trikitilariak.
- **Abuztuak 16, igandea**
- 11:30 Garai bateko elizaren inguruan meza, bertsoak, trikitixa eta dantzariak. Pintxoak eta edariak salgai.

## Azokak

- **Andoain**
- **Stock azoka**, Salkin merkatarien elkartearen eskutik.
- 10:00-19:00 Produktuak stock-ean.
- 10:00-12:00 / 17:00-19:00 Bastero inguruan puzgarriak haurrentzat.
- Uztailak 18, larunbata.

## Irteera

- **Andoain**
- Santa Krutz erretiratuen zentroko antolatuta: Castro Urdiales-Isla. Irteera: 09:00, Olagain auzotik bertatik.
- Uztailak 18, larunbata.

## ZORION AGURRAK

ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK
			
<b>Danel</b> , abuztuaren 17an lau urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu potolo asko Oier, aitaxo eta amaxoren partez.	<b>Inge</b> Igarrirek 8 urte beteko ditu. Zorionak polita! Muxu handi bat etxekoan partez!	<b>Markel</b> Lantz Audikanakuztailaren 29an 10 urte beteko ditu. Zeinen ondo ospatuko dugun! Muxu handia. Etxekoak.	<b>Aia</b> Aizpurua Otañok uztailaren 30ean 4 urte beteko ditu. Muxu goxo handi bat Aimar, aita-xo eta amaxoren partetik.
ANDOAIN	ANDOAIN	ANDOAIN	ANDOAIN
	<b>ZORIONAK MAIALEN</b> Azkenean iritsi da hain esperoan zenuen 8.a. Uztailaren 16an izan zen. Muxu potolo bat. Segi beti bezain alai, polita!	ANDOAIN	■ <b>ZORION AGURRAK AIURRIN. ERRAZA DA!</b> Whatsapp: 619 163 537.

## Gipuzkoako txokoak ezagutzeko aukera

- Urnietako Gaztelekuarekin, irteerak. Informazioa: Garazi eta Unai 608 928 311.
- Uztailak 20, astelehena:** Leitzaran bizikletaz. Bizikleta eta kaskoa eraman behar dira.
- Uztailak 21, asteartea:** Arditurri (Oiarzun) bizikletaz. Bizikleta eta kaskoa eraman behar dira.
- Uztailak 22, asteazkena:** Pasai Donibanera irteera.
- Uztailak 23, osteguna:** Hondarribira irteera.
- AISIALDIA GAZTELEKUAN**
- Uztailak 20, astelehena:** 17:00 Batidoak.
- Uztailak 21, asteartea:** 17:00 Ur jolasak.
- Uztailak 22, asteazkena:** 17:00 Giltzatakoak.
- Uztailak 23, osteguna:** 16:30 Street futbola Gaztelekuaren kanpoaldean.

